

7. ARTIKULUA.– ZUZENDARIAK AUKERATZEKO PROZEDURA

- 1.– Hezkuntza-komunitateak eta hezkuntza-arloan eskumena duen sailak parte hartuko duten prozesu baten bidez hautatuko da zuzendaria.
- 2.– Zuzendaria izendatzeko hautaketa merezimendu-lehiaketa bidez egingo da, ikastetxeari esleitutako irakaskuntzaren bat ematen duten karrerako irakasle funtzionarioen artean. Hautaketa berdintasun-, publikotasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera egingo da.
- 3.– Ondorengo arau-xedapenetan ezarriko dira hautaketarako irizpide objektiboak eta prozedura, betekizunak eta merezimendu akademiko eta profesionalak egiaztatze modua, bai eta egiaztatutako merezimenduak eta hautagaiek aurkeztutako proiektuak baloratzeko irizpideak ere.
- 4.– Zuzendariak hautatzeko eta izendatzeko merezimendu-lehiaketa urtero deituko da, eta ikasturtearen amaieran zuzendari-kargua hutsik geratuko den ikastetxeak hartuko ditu barnean.
- 5.– Merezimendu-lehiaketak bi fase izango ditu. Lehenengo fasean, zuzendaritza-proiektua eta haren defentsa baloratuko da. Proiektu horretan, hautagaiak ikastetxeko hezkuntza proiektuari buruz egindako zuzendaritza-proposamena jasoko da. Bigarren fasean, ikastetxeko zuzendaritzarako hautagaitza aurkeztu duten pertsonen alegatutako merezimenduak baloratuko dira.
- 6.– Hautaketa-prozedura gainditu dutenek, izendatu aurretik, 5. artikuluan jasotako zuzendaritza-funtzioa betetzeko konpetentziei buruzko prestakuntza-programa espezifiko gainditu beharko dute.